

ONGI ETORRI EUSKARAREN MUNDURA

II. Harrera jardunaldiak

**Ekainak 5 - 6
ARRUPE ETXEA
BILBO**

”K EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



EKAINAK 5



09:30 HARRERA ETA IREKIERA EKITALDIA

Aitor Aldasoro Iturbe,
Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordea
Idurre Eskisable Larrañaga,
Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia



10:00 HITZALDIA: KATALUNIAKO ESPERIENTZIAK ETA POLITIKAK

Vanessa Bretxa i Riera,
Kataluniako Generalitateko Katalanaren Ezagutza
Eskuratzeko eta Erabilera Sustatzeko zuzendari nagusia



11:30 KAFERAKO ETENALDIA



12:00 HITZALDIA: HARRERA LINGUISTIKOA. OINARRIAK ETA ERRONKAK

Belen Uranga Arakistain,
Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria eta Bat Soziolinguistika
Aldizkariaren koordinatzailea



13:00 SOLASALDIA: IRITSI, IRAUN, BIZI. EUSKAL HERRIRA HELTZEN DIREN MIGRATZAILEEN IBILBIDEAK

Mikel Mazkieran Lopez de Goikoetxea, SOS Arrazakeria
Rizwan Ali 'Jon', Ibarako Bizi Nahi elkartea



14:00 BAZKALTZEKO TARTEA



15:00 MAHAINGURUA: HARRERA INSTITUZIONALA. ERAKUNDE PUBLIKOEN ROLA ETA ERANTZUKIZUNA

Javier Aramaka Urtiaga, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko
zuzendari kudeatzailea
Eusko Jaurlaritza
Itsaso Lekuona Legorburu, Hernaniko Udaleko Berdintasun zinegotzia
Laia Etxandi Loiarde, Hernaniko Harrera bulegoko teknikaria eta
Dobera Euskara Elkarteko kidea



16:30 ITXIERA

ONGI ETORRI EUSKARAREN MUNDURA

Harrera jardunaldiak II

Ekainak 5-6

Arrupe Etxea, Bilbo

EKAINAK 6**09:30 SOLASALDIA: ASKOTARIKO BIDEAK, HAUTU BAT. ZER EMAN DIGU EUSKARAK?**

Eli Carrascosa Vacas, Gabriel Aresti euskaltegiko ikaslea eta irakaslea
 Fernan López López,
 Julia Shershneva Zastavnaia, Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal
 Behatokiko zuzendaria
 Boubacar Diouf, Mbolo Moye Doole elkarteko kidea

**10:15 MAHAINGURUA: HEZKUNTZA EUSKARATIK ABEGI**

Josune Zabala Alberdi,
 Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Euskararen eta Hizkuntzen
 Ikaskuntzarako Institutuaren zuzendaria
 Garazi Zarautz Pensado,
 Ongi Etorri Eskolara proiektuko koordinatzailea
 Odei Guirado Irasuegi,
 Pedagogoa, Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldeko ikertzailea,
 Pulunpa (e)ta Xin!, erdal jatorria duten ikasleentzako
 harrera- eta murgiltze-plana

**11:15 KAFERAKO ETENALDIA****11:45 MAHAINGURUA: ONGI ETORRIA KOMUNITATETIK**

Iñigo de Pablo Rojo, Herriko Benta (Artea)
 Eneko Gorri, Plazara (Ipar Euskal Herria)
 Ane Salvador, AZET etxebizitza sindikatua (Bilbo)
 Iñaki Telleria, Txatxilipurdi aisialdi taldea (Arrasate)

**12:45 ARIKETA DINAMIZATUA: IZAN GAITEZEN HARRERA HERRI BAT, ETA EUSKARA HARRERA HIZKUNTZA BAT****13:30 ITXIERA****ANTOLATZAILEAK:**

EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SIDA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EKAINAK 5

🕒 10:00-11:30

KATALUNIAKO ESPERIENTZIAK ETA POLITIKAK

Gizartea bizkor garatzen ari da, eta ukaezinak diren lorpenak gorabehera, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzan joera negatiboa erakusten duten adierazleak ugariak dira. Katalanaren egoera konplexua da. Bilakaera handia izan du, batetik, barne dinamikaren ikuspegitik, eta, bestetik, ditugun eraldaketa global handien ikuspegitik. Kataluniako gizartean gertatu diren aldaketak, munduko merkatuaren hedapena, migrazio-fluxuak, nonahi partekatutako ziberespazio baten agerpena... Tes-tuinguru horretan, katalana hizkuntza asko dituen gizarte bateko kohesiorako tresna egiteko hizkuntza politikak bultzatzen dira.



Vanessa Bretxa i Riera

Kataluniako Generalitateko Katalanaren Ezagutza Eskuratzeko eta Erabilera Sustatzeko zuzendari nagusia

Bartzelonako Unibertsitateko Soziologian doktorea, eta hizkuntzaren eta hizkuntza plangintzaren soziologian aditua da. Hamabost urte baino gehiagoko esperientzia du ikerketan, proiektuen kudeaketan eta unibertsitateko irakaskuntzan.

Ibilbide sendoa du inkesta demolinguistiko eta hezkuntza soziolinguistikoen diseinuan eta analisisan, aldizkari akademiko indextatuetan argitalpen ugariarekin. Ikerketa proiektuak zuzendu ditu eta diziiplina anitzeko taldeak kudeatu ditu ingurune akademiko eta instituzionaletan.

Bestalde, Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria izan zen Hizkuntza Normalkuntzarako Partzuergoan (2018-2021) eta Bartzelonako Unibertsitateko Soziolinguistika eta Komunikaziorako Ikerketa Zentroko (CUSC-UB) ikertzailea (2007 eta 2018). Irakasle elkartua ere eman du Pompeu Fabra Unibertsitatean (2016-2017), Bartzelonako Unibertsitatean (2010-2016) eta Kataluniako Unibertsitate Irekian (2008-2021).

EKAINAK 5

🕒 12:00-13:00

HARRERA LINGUISTIKOA. OINARRIAK ETA ERRONKAK

Euskal Herria, XXI. mendeko immigrazioaren testuinguruan, gizarte anitz eta eleanitza bilakatu da, 170 herrialde baino gehiagotatik etorritako biztanleekin. Hizkuntza- eta kultura-aniztasun handiak aukera eta erronka berriak dakartza: 120 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, baina horrek, era berean, hiztunen eta hizkuntzen arteko hierarkizazio arriskua dakar, ideologia arrazoi-linguistikoek elikatua. Testuinguru hone-tan, ezinbestekoa da kulturartekotasunaren ikuspegitik jardutea, euskararen biziberritze-prozesua eta kultura-aniztasunaren aitor-tza uztartuz. Harrera linguistikoa gizarte gisa bermatzeko, Euskal Herriak bi mailatan jardun behar du: administrazioek harrera integrala bermatuko duten politika publikoak ezarri behar dituzte, eta gizarte zibilak elkargune erre-alak sortu behar ditu, non interakzioa eta parte-hartzea oinarri izango diren.

Etorkinen integrazio soziolinguistikoa ez da formaltasun hutsa izan behar, baizik eta euskara erabiliz gizartean parte hartze-ko aukera berdintsua bermatuko duen ekintza kolektiboa. Azken urteotako ikerketek erakusten dute ez dela nahikoa euskara gutxituaren inguruko informazioa eskaintzea, nahiz eta hori ezinbestekoa eta hobetu beharrekoa izan. Gakoa da euskaraz hitz egiteko egiten den ahaleginak gizartearen alde-tik baliozkoa dela benetan demostratu behar dela. Eta hori ez da mezu hutsa: gizarte osoak erakutsi behar du euskaraz ere eraikitzen den komunitatea nahi eta behar duela. Euskararen aldeko hautua —praktikoa zein afektiboa— gizarte osoaren proiektu kolektibo gisa ulertu behar da, eta bertako nahiz etorkinentzako gizarte bidezkoago eta parte-hartzaileago bat eraikitzeko oinarri sendoa bihurtu.



Belen Uranga Arakistain

Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria eta Bat Soziolinguistika Aldizkariaren koordinatzailea

Euskal Filologian lizentziatua. Soziolinguistika Klusterreko hizkuntza-teknikari honako gaitan: Hizkuntza-ekologia, hizkuntza-aniztasuna, immigrazioa, BAT Aldizkaria, Hausnartu sariak, Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak e.a. HIZNET graduondoko irakaslea, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedrako kide eta GARABIDE elkartearen kolaboratzaile da. Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologiaren inguruko hainbat liburutan eta artikulutan parte hartu du.

EKAINAK 5

🕒 13:00-14:00

IRITSI, IRAUN, BIZI. EUSKAL HERRIRA HELTZEN DIREN MIGRATZAILEEN IBILBIDEAK

Solasaldiaren helburua izango da migratutako pertsona batek Euskal Herrira iristean egiten duen ibilbidea ikusaraztea eta ulertzea: bere bizi-esperientziatik eta esperientzia emozionaletik hasi eta aurre egin beharreko izapide juridiko eta administrazioetarako. Entzuteko eta hitz egiteko espazio bat sortu nahi dugu, migrazio-prozesuaren konplexutasuna aitortzeko eta migratutako pertsonen erresilientzia eta harrera-sareen zeregina balioesteko.



**Mikel Mazkieran Lopez de
Goikoetxea**

SOS Arrazakeria



Rizwan Ali 'Jon'

Ibarrako Bizi Nahi elkarte

EKAINAK 5

🕒 15:00-16:30

**HARRERA INSTITUZIONALA. ERAKUNDE
PUBLIKOEN ROLA ETA ERANTZUKIZUNA**

Zer leku du hizkuntzaren dimentsioak harrera dispositibo publikoetan? Harrera linguistikoa modu erreal, planifikatu eta transbertsalean al dago presente politika instituzionaletan? Nola egituratzen da pertsona migratuen euskara ikasi eta erabili ahal izateko eskubidea?

Mahainguru honek hainbat eskala instituzionaletan diharduten arduradunak elkarriketan jarri nahi ditu, erakunde publikoetatik, hizkuntza harrera egoki baterako estrategiak ber pentsatzeko asmoz.



Javier Arakama Urtiaga

Euskarabidea-
Euskararen Nafar
Institutuko zuzendari
kudeatzailea



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritza



**Itsaso Lekuona
Legorburu**

Hernaniko Udaleko
Berdintaun zinegotzia



Laia Etxandi Loiarte

Hernaniko Harrera
Bulegoko teknikaria
eta Dobera Euskara
Elkarteko kidea



EKAINAK 6

🕒 09:30-10:15

ASKOTARIKO BIDEAK, HAUTU BAT. ZER EMAN DIGU EUSKARAK?

Solasaldi honetan euskarara desiratik, jakin-minetik, beharretik edo erabaki kontzientetik hurbildu direnen askotariko ahotsak bilduko ditugu. Hizkuntzarekiko lotura nola eraikitzen den eta nola eraldatzen den kontatuko digute. Galdera bat mahai gaineratu nahi dugu: nola egin dezakegu euskara benetako aterpe izan dadin denontzat?



Eli Carrascosa Vacas

Gabriel Aresti
euskaltegiko ikaslea
eta irakaslea



Fernan López López

AEKko ikasle ohia eta
Eusko Treneko langilea



Boubacar Diouf

Mbolo Moya Doole
elkarteko kidea



**Julia Shershneva
Zastavnaia**

Ikuspegi, Immigrazioaren
Euskal Behatokiko
zuzendaria

EKAINAK 6

🕒 10:15-11:15

HEZKUNTZA EUSKARATIK ABEGI

Hezkuntza ardatza da egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapen-prozesuan, belaunaldi berriek hizkuntza gutxituaren gaitasun egokia bermatzen duelako, bai eta gizarte-kohesioa zein bizikidetzat bermatzeko giltzarria ere badelako.

Zeintzuk dira josi beharreko aliantzak, erakunde, hezkuntza eragile eta komunitateen artean? Zein aldaketa estruktural beharko genituzke aurrera egiteko?



Josune Zabala Alberdi

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza
Saileko Euskararen eta
Hizkuntzen Ikaskuntzarako
Institutuaren zuzendaria



Odei Guirado Irasuegi

Pedagogoa, Zirimola Ikastolen
Aisialdi Taldeko ikertzailea, Pulunpa
(e)ta Xin!, erdal jatorria duten
ikasleentzako harrera- eta
murgiltze-plana



Garazi Zarautz Pensado

Ongi Etorri Eskolara proiektuko
koordinatzailea

EKAINAK 6

🕒 11:45-12:45

ONGI ETORRIA KOMUNITATETIK

Harreraren indarguneak plano lokalean daude, beraz, harrera komunitarioak ahalbidetu eta bultzatzea estrategikoa da, harrera integrala izateko zume gisa. Ikuspegi komunitarioz, inklusioa sustatuz, ahalduntzea eta bizi baldintzak eraldatzea oinarri eta hizkuntza zehar-lerro gisa txertatuz lan egiten duten lau kolektibo gonbidatu ditugu.



Iñigo de Pablo Rojo
Herriko Benta (Artea)



Eneko Gorri
Plazara (Ipar Euskal Herria)



Ane Salvador
AZET etxebizitza sindikatua (Bilbo)




Iñaki Telleria
Txatxilipurdi aisialdi taldea (Arrasate)

EKAINAK 6

🕒 12:45-13:30

**IZAN GAITEZEN HARRERA HERRI BAT, ETA
EUSKARA HARRERA HIZKUNTZA BAT**

Jardunaldietan entzun eta jasotakoaren inguruan hausnartu, eta ondorioak denon artean atera eta partekatzeko ariketa dinamizatua egingo da Kontseiluko kideek dinamizatutako saio honetan.





ONGI ETORRI EUSKARAREN MUNDURA

II. Harrera jardunaldiak